Erantzunak

Haizea Goldaracena Sesma
DBH 3. eta 4. kurtsoak 1. saria
Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola

Hitz horiek, betidanik nire ama zela sinetsarazi zidan emakume hark esan zizkidan hitz latz horiek, laban puntazorrotzen antzera iltzatu ziren nire bihotzean. Gezurrak, gezurrak eta gezur gehiago. Min handia egiten du zure bizitza osoa iruzurra izan dela konturatzeak. Eta orduan egiaren bila zoaz, arrain batek ura bilatzen duen bezalaxe... Eta egiarekin aurrez aurre topo egiten duzunean, benetako egia oso mingarria izan daitekeela konturatzen zarenean, hainbeste gezurren ondoren aurrera jarraitzeko egia beharrezkoa baduzu ere, agian hobe izango litzatekeela iruzur baten menpe bizitzen jarraitzea pentsatzen duzu.

Luka Berenyal Albalá
Jaioterria: Al-Djazaïr
Jaioteguna:1988ko urtarrilaren 6an.
Bizitokia: Bartzelona-Espainia
Amaren izena: Kauhkab Albalá
Aitaren izena: Abdel Berenyal

Horiexek dira orain eskuartean daukadan paper zati batek nire nortasunari buruz ematen dituen datuak. Baina zein ote da nire benetako nortasuna? Zein izango da nire benetako amaren izena? Eta nire aitarena? Hainbeste galdera nire buruan, gehiegi, eta hain erantzun gutxi...

Inoiz ez dut nire gurasoen inolako antzik izan. Nire gurasoek begi ilunak, nik argiak. Haiek ile argia, nik iluna. Oso umea nintzenean, nire lagunak zirela ziotenek horrekin zirikatzen ninduten, umeordea nintzela edo zioten eta *Zure gurasoek lastimagatik adoptatu zintuzten* edo *Zure ama emagaldua zela* bezalako gauzak entzun behar nituen. Ez dakit zehazki zergatik, baina horrek min handia egin dit beti. Horrelako zerbait esaten zidaten bakoitzean nire bihotzean hutsune latza sentitzen nuen eta ezin nituen nire masailetatik irristatzen ziren amorru malkoak eten. Egun horietan etxean sartu eta amonak bidalitako Umpload talde amerikarraren diskoa entzuten nuen behin eta berriz, begiak itxi eta hitz horiek sinetsi nahian.

Although you don´t know the magic word
you will know the truth
Although you don´t know the magic word
I can invent it: is LIVERTY

Behin, hamazazpi urte inguru izango nituenean, nire gurasoen solasaldi bat entzun nuen:

—Kauhkab, ez al duzu uste Lukari egia esateko ordua iritsi dela? Noizbait egia kontatu beharko diogu -esan zion aitak amari.

—Ez dakit agian oso umea da oraindik horrelako zerbaiti aurre egiteko, egia da, noizbait esan beharko diogu, egia jakiteko eskubide osoa dauka, baina badakizu oso ahula eta minbera dela eta horrek min handia egingo diolakoan nago- ihardetsi zion amak serio-serio.

Berbeta hori entzun eta gero, gauza asko pasa zitzaizkidan burutik. Zer ote zen nire gurasoek hainbeste denboraz ostendu zidatena? Zergatik egingo zuten horrelako zerbait? Erantzunak behar nituen, baina beldur nintzen, erantzunen beldur.

Hala ere, adorez eta kemenez bete nintzen eta amari galdetzea erabaki nuen:

— Ama, zer da min handia egingo didan hori, baina jakiteko eskubidea dudana? -erran nion, nire gorputz osoak menpean zuen dardara ezkutatu nahian.

Amaren aurpegian ziharduen irribarre alaia momentu batean desagertu zen. Bere begi ilunak alde batera eta bestera higitzen ziren, sukaldeko txoko ezkuturen batean erantzun bat bilatuko balu bezala.

— Maitea, lehen ezer esan ez badizut, asko-asko maite zaitudalako da. Eser zaitez, mesedez- esan zidan bera sukaldeko aulki zahar batean eseriz. Nik berdin egin nuen eta nire ama maitea berbetan hasi zen:

—Zu jaio zinen egun berberean, nik neska batez erditu nintzen. Baina nire alaba zena ez zetorren ongi eta erditzerakoan hil egin zen. Ni oso gaizki egon nintzen, hilzorian, baina aurrera ateratzea lortu nuen. Baina ez nintzen guztiz suspertu eta ezin izango nuen inoiz seme-alabarik izan, hori eginez gero, nire osasuna arrisku handian jarriko bainuen. Horrek min handia egin zidan eta depresio ikaragarriak jasan behar izan nituen. Ez neukan aurrera jarraitzeko gogorik ezta indarrik ere. Orduan zure aitak, etxera ekarri zintuen- amak hitz egiten zuen bitartean, ezin zituen erdirapen malkoak eten, eta biok negar egin genuen.

—Etxean sartu zinen egunetik, dena askoz hobeto joan zen, nire gaixotasuna gainditu nuen eta nire benetako semea zinela sinetsi nuen. Zuk sei hilabete inguru zenituenean, Al-Djazáir utzi eta Bartzelonara etorri ginen hirurok.

Hitz horiek, betidanik nire ama zela esan zuen emakume hark esan zizkidan hitz latz horiek, laban puntazorrotzen antzera iltzatu ziren nire bihotzean. Gezurrak, gezurrak eta gezur gehiago. Min handia egiten du zure bizitza osoa iruzurra izan dela konturatzeak. Eta orduan egiaren bila zoaz, arrain batek ura bilatzen duen bezalaxe... Eta egiarekin aurrez aurre topo egiten duzunean, benetako egia oso mingarria izan daitekeela konturatzen zarenean, hainbeste gezurren ondoren aurrera jarraitzeko egia beharrezkoa baduzu ere, agian hobe izango litzatekeela iruzur baten menpe bizitzen jarraitzea pentsatzen duzu.

—Baina, orduan nortzuk dira nire benetako gurasoak?-esaten saiatu nintzen malko artean.

—Semetxo, sentitzen dut, baina nik dakidan bakarra behin emakume bat zure bila aritu zela da. Emakume horren izena Kalila Adsuar dela uste dut eta Burtucalen bizi dela, oso txikia zinen oraindik eta ezer ez esatea hobe izango zela erabaki genuen zure aitak eta biok -ihardetsi zidan gozoki, buruan ferekak egiten zizkidan bitartean.

Egun horretan zin egin nion neure buruari nire ikasketak bukatzen nituenean Afrikara bidaiatuko nintzela nire benetako amaren bila. Bere azalpenak behar nituen. Askotan egin zuena, abandonatzea edota saltzea, ulertzen saiatu nintzen baina ezin nuen. Ez zitzaidan buruan sartzen nola ama bat bere seme-alabarengandik urruntzeko gai zen. Ez nuen ulertzen eta berarekin, eta bakarrik berarekin, hitz egin behar nuen.

Esan eta egin. Hogei urte bete nituenean, ikasketak bukatu eta Burtucalera abiatu nintzen. Amari komentatu nionean, ez zitzaion ideia asko gustatu, baino ulertu zuen. Ulertu behar zuen, mundura ekarri ninduen emakumea ezagutu nahi nuen, ezagutu behar nuen.

Hara iritsi nintzenean, nire barneko erraiak mugitzen hasi ziren. Arraro sentitzen nintzen, toki ezagun batera bueltatu izan banintz bezalaxe. Erregistro Zibilerantz abiatu nintzen, bertan Kalila Adsuari buruz zerbait jakingo zutela pentsatuz. Bidetik pertsona ugari topatu nituen. Berdinak jaiotzez, berdinak heriotzez, gizaki oro bezala, baina denak hain ezberdinak.

Nahiko erraza izan zen emakume harekin topo egitea, hiri txikitxoa baitzen. Erregistro Zibilean, nekien guztia esan eta bere helbidea eman zidaten arazorik gabe. Etxe horretarantz ematen nuen pauso bakoitzean, nire bihotzaren erritmoa bikoizten zen.

Eta hara iritsi nintzen, 45 zenbakia zela ziurtatzen zuen plaka herdoildu baten aurrera. Geratzen zitzaidan adore eta kemen gutxia atera eta txirrin zaharra sakatu nuen.

DIN-DON

Luka Berenyal Albalá
Jaioterria: Al-Djazaïr
Jaioteguna:1988ko urtarrilaren 6an.
Bizitokia: Bartzelona-Espainia
Amaren izena: Kauhkab Albalá
Aitaren izena: Abdel Berenyal

Horiexek dira orain eskuartean daukadan paper zati batek nire nortasunari buruz ematen dituen datuak. Baina zein ote da nire benetako nortasuna? Zein izango da nire benetako amaren izena? Eta nire aitarena? Hainbeste galdera nire buruan, gehiegi, eta hain erantzun gutxi.

Bihotza ahotik atera behar zitzaidala sentitu nuen. Orduan emakume xume bat agertu zen atearen beste aldean. Soineko zahar eta zimeldu bat zeraman soinean, lepotik oinetaraino, bere gorputz ahula estaltzen zuena. Bere aurpegian, denboraren oinazeak eragindako zimurdurak ziren nagusi. Bere begi ilunduez goitik behera aztertu ninduen.

—Kaixo, egun on, Kalila Adsuar zaitut?-erran nion lasaitasuna erakutsi nahian.

—Bai, neu naiz. Zergatik?-ihardetsi zidan beltzuri eginez

—Luka Berenyal dut izena. Neure bila ibili zinela esan didate...-esan nion.

Momentu horretan bere aurpegia erabat aldatu zen. Bere begi txikiak malkoz bete ziren eta nigana hurbildu zen poliki-poliki, bere esku idokiez suabe-suabe neure masaila ukitu zuen, eztanda egingo zuen xaboizko punpuila bat izango banintz bezala. Orduan neure gorputza bere soinaren kontra estutu zuen. Sar zaitez Luka, azalpen bat zor dizudala uste dut -eskutik heldu eta barrurantz egin genuen biok, biok elkarrekin.

Horrela hitz egiten hasi zen emakumea:

—Nik hamazazpi urte nituenean, haurdun geratu nintzen. Hasierako hilabeteetan, haurdunaldia ezkutuan eraman behar izan nuen, nire aitak jabetuz gero, hil egingo ninduelako, berak aginduta, berrogei urteko gizon batekin ezkondu behar nuelako. Haurdunaldia ezkutatzea ezinezkoa izan zenean, etxetik alde egin behar izan nuen. Oso egoera txarretan erditu nintzen eta ezin nintzen zutaz arduratu. Orduan zure aita niregana etorri eta bizitza ona emango zizula ziurtatu zidan. Nire bizitzan hartu dudan burubiderik garrantzitsuena eta zailena izan da, baina egin behar nuen. Ezin nuen nire semea, nik neraman bizitza putara narraz egin.

Aulkitik altxa eta gogor besarkatu nuen, inoiz inor besarkatu ez dudan bezala, biok negar egin genuen eta nire bihotzeko hutsune latza betetzen joan zen poliki-poliki.

Min egin zidaten hitz horiek, bai, baina azkenean erantzunak lortu nituen. Hainbeste denbora nire atzetik arrastan zetozen galderen erantzunak.